




AZTERKETA

Kultura Diplomazia



Aurkibidea

Aurkezpeza **3**

1. AURREKARIAK **4**

2. KONTZEPTUEN MUGAKETA **6**

3. BEGIRADA PRAKTIKOA **8**

4. ERREFERENTZIAK **10**

AURKEZPENA

Kultura-diplomazia terminoaren erabilera berri samarra da nazioarteko harremanetan, kultura-estrategia diplomazia tradizionalaren zati izan bada ere. Herrialde askotako aurkezpen-txartel nagusietako bat dugu kultura, herrialde horiek dituzten bestelako erronkak (politikoa edo nazioartean jarrera hartzekoak) lortzen lagunduko dien irudi bereizgarria sustatzeko ahaleginak egiten baitituzte. Baina alderdi horretaz haratago, kultura-diplomaziak funtsezko garrantzia duen eginkizuna du gaur egungo nazioarteko harremanetan. Kultura-elkartrukeei esker, beste errealitateekiko puntu komunak eta adostasun-puntuak ezagut eta oinarri ditzakegu. Nazioarteko harremanen zati *soft* edo biguntzat hartzen zen kultura-diplomazia, baina gaur egun, garrantzi handiagoa hartzen ari da, eta diplomazia tradizionalaren maila berean kokatu da.

Etxepare Euskal Institutua testuinguruan, txosten laburra egin da kultura-diplomaziatzat zer hartzen den eta horren aplikazio praktikoak zer ondorio dituen argitzeko. Txosten hori egiteko, gaiari buruzko bibliografia-erreferentzia nagusien bilaketa egin da, eta hainbat kasu praktiko detektatu dira. Dokumentazio horren azterketan oinarrituta, eduki interesgarrienak sintetizatu dira eta euskal ekimenerako probetxu handienarekin aplika daitezkeen ikaskuntzak bildu dira.

Lau zatitan egituratu da txostena:

Aurrekariak.

Kultura-diplomazia bere erreferentzia-esparruan kokatzen du.

Kontzeptuen mugaketa.

Kultura-diplomaziaren inguruan dauden oinarritzko kontzeptuak sistematizatzen ditu.

Begirada praktikoa.

Kultura-diplomaziako estrategiak garatzeko unean kontuan izan beharreko elementuak proposatzen ditu.

Erreferentziak.

Kontzeptuari buruzko bibliografia-erreferentzia nagusiak eta kultura-diplomaziaren aplikazio praktikoak biltzen ditu.

1. AURREKARIAK

Kultura-diplomaziaren kontzeptuak deskribatzen duen edukia ez da berria, diplomazia bera bezain zaharra baita. Sistema politiko guztiek kultura eta artea erabili dituzte beren burua kanpora erakusteko eta, zenbait kasutan ere, inposatzeko. Lehengo eta egungo kultura-diplomazia bereizten dituen lan-helburua da: egungo errealitate askoz ere konplexuago honetan, askoz ere gai gehiago eta era askotakoak jorratu behar ditu kultura-diplomaziak. Adibidez, kultura-diplomazia herrialde baten kanpo-sustapenaren zati batez arduratu daiteke, edo nazioarteko lankidetzaren politikaren zati gisa erabili.

Gaur egun kultura-diplomazia zer den ulertzeko aurrekaririk argiena Joseph Nye-ren *soft power*-rean aurki dezakegu. *Bound to Lead: The Changing Nature of American Power* (1990) lanean, eta ondoren *Soft Power: The Means to Success in World Politics* (2004) lanean, Estatu batek bere helburuak betetzeko duen gaitasuntzat definitu zuen Nye-k *soft power*-ra, baina mehatxuen eta sare ekonomikoen bidez baino herrialdearen politikekiko, kulturarekiko edo idealekiko erakarpenean eta pertsuasioaren bidez. Estatu Batuen indar militarrek bere aliatu edo potentzia txikiekin duen harremana aztertzen du autoreak, eta nola izan litekeen lagungarria botere biguna hesi jakin batzuk gainditzeko. Hori horrela, *hard power*-rarekiko kontraposizio gisa ere uler daiteke *soft power*-ra, diplomazia tradizionalak erabiltzen duen abilezia hertsatzailearen kontraposizio gisa.

Diplomazia publikoari oso loturiko praktika gisa ere uler liteke kultura-diplomazia. Erik Rudeng norvegiar autoreak definitu zuenez, gobernuak beste herrialde bateko biztanleriengana zuzenean heltzeko baliatzen dituzten ekintzen multzoa da diplomazia publikoa. Maila goreneko erakundearen artean ezartzen diren harreman gisa deskriba daiteke diplomazia tradizionala, eta diplomazia publikoak, aldiz, herrialde bat beste Estatu batzuetako herritarrekin nola komunikatzen den du aztergai. Horregatik oinarritzen du diplomazia publikoak bere indarra erakarpenean.

Diplomazia publikoa nazioarteko harremanen multzoaren gain izaten ari den pisuaren gehitzeak munduko jokaleku desberdina planteatzen du.

Era berean, kultura-diplomaziari buruzko gogoeta ez da atera kultura kontzeptuari buruzko hondoko eztabaidatik. XXI. mendean kultura ez da jada modu unibokoan ulertzen. Kulturaren egungo kontzeptua konplexutasunean eta pluraltasunean oinarritzen da, egungo gizarteetan ez

baitago kultura bizitzeko eta ulertzeko modu bakarrik. Horregatik, kultura-espresioak dira aipatu beharrekoak, nortasun askotarikoak, kulturak, hitz batean. Kontzeptu mutante, askotariko eta konplexu hori da gaur egun kultura-diplomaziak landu beharrekoa.

2. KONTZEPTUEN MUGAKETA

Diplomazia publikoaren zati gisa uler daiteke kultura-diplomazia. Esku hartzen duten agenteek (ez dira erakunde ofizialak bakarrik), hartzailleek (beste herrialdeetako biztanleak oro har) eta erabil ditzakeen baliabideek (komunikazioa, informazioa, kultura, hezkuntza....) bereizten dute diplomazia publikoa diplomazia tradizionaletik.

Diplomazia publikoa aztertzean azpimarratu beharreko gai nagusia abiaraziko diren ekintzen hartzailera da. Diplomazia tradizionalak ez bezala, publiko zabalarengana heldu nahi du diplomazia publikoak, atzerriko iritzi publikoarengana, eta mezu argiekin konbentzitu behar du. Horrenbestez, diplomazia publikoa ez zaie zuzentzen beste herrialde bateko gobernu-erakundeei, eta, aitzitik, zenbait esparruren bidez, pertsonen multzo zabalean eragin nahi du.

Hori horrela, balioak eta kultura-baliabideak gizarte bateko kultura-espresioak zabaltzeko edo pertsona eta herri desberdinen artean elkarriketa-zubiak altxatzeko erdiko elementu gisa finkatzen dituzten harremanen multzo gisa defini daiteke kultura-diplomazia.

Kultura-diplomaziaren agerpena paradiplomaziaren edo gobernantza maila anitzekoaren garapenari ere lotu zaio. Diplomaziaren esparruan estatukoak ez diren administrazioek garatzen dituzten ekintzen multzo gisa defini daiteke paradiplomazia. Eta gobernantza maila anitzekoa gertatzen da gobernu-mailek, toki-administrazioarekin hasi eta ministerio edo departamentuekin amaitu, nazioarteko alorrean neurri txikiagoarekin edo handiagoarekin esku hartzen dutenean.

Nazioartean, Gerra Hotzaz geroztik indar-erlazioan izandako aldaketak direla-eta, diplomaziak aurrera egin du, eta harekin aldi berean, kultura-diplomaziak ere bai. Horrela, esparru askotan kultura-diplomazia funtsezkoa dela uste dute gaur egun. Nahiz eta edozein kultura-espresio izatea bera ere garrantzitsua den, garrantzitsua da, halaber, indartsuagoa izango dela besteek onespren handiagoa dioten neurrian. Testuinguru horretan, dimentsio txikiagoko kultura guztiei munduan kokatzen, agertzen, laguntzen die kultura-diplomaziak.

Horrela, bi estrategia handi ageri dira munduan kulturalki kokatzeko:

- *Klasikoa*, Estatu handienek eta baliabide gehien dituztenek historikoki hartu dutena.
- *Egungoena*, nazioarteko konektibitatea aprobetxatzean oinarriturikoa.

Tradizionalki, Estatuak baliabide ugari inbertitu dute kultura sustatzeko kanpo-sustapeneko institutuen hedapenaren bidez (*British Council* erakundea, *Institut Français* erakundea, *Cervantes Institutua*...), batez ere hizkuntzen ikasketan eta kulturen zabalkuntzan aritzen diren institutuena. Kasu guztietan ere, eragin nahi izan den lurraldeen gain erakunde handien sare baten hedapenaren bidez gauzatu da estrategia politikoa. Kontraposizio gisa, lurralde txikiek gaur egun duten alternatiba egungo baliabideak aprobetxatzea eta, beren kultura-erakundeak abiarazteko plataforma gisa erabilia, munduan kokatzea da. Nazioarteko onespina duten ekitaldiak (adibidez, zinemaldia, museo erakundea,...) aprobetxatzen dira nork bere burua azaldu eta kanporantz proiektatzeko.

Alor horietan, hiri jakin batzuen dinamismoak funtsezko papera du, agente katalizatzaile gisa erabil baitaitezke hiri horiek Hiriak, beren dimentsioagatik, aldaketetara egokitzeko beren ahalmenarengatik, egitura arinak dira eta, ildo horretan, egokiagoak proiektzio-premia jakin batzuei erantzuteko.

Dena dela, adituek adierazten dutenez, kultura-diplomazia on baten garapenaren onurak askotarikoak eta norabide askotakoak dira. Lehenik, barne-kohesioa indartzeko bidea —zenbat eta onspen handiagoa, jende horren orduan eta errespetu- eta estimu-maila handiagoak—. Bigarrenik, kultura-diplomaziak har dezakeen protagonismoak aniztasun globalaren sendotzearen alde joka dezake, baita kanal ofizialekiko aukera alternatiboak eraikitzearen eta mantentzearen alde ere.

Kultura-diplomaziak bere mugak baditu ere, diplomazia publikoak balia dezakeen erreminta nagusietako bat bihurtzen ari da pertzepzioak aldatzeko, aurreiritziak hausteko eta propioari buruzko ikuspegi desberdinak planteatzeko. Kultura-diplomaziaren helburuak epe luzerako dira, eta horrek sarritan ikuspena kentzen dio, eta laguntza publiko luzea eskatzen du, lortzen erraza ez dena. Dena den, horren bidez lor daiteke izugarri lehiakorra den merkatu batean tartea egitea.

3. BEGIRADA PRAKTIKOA

Kultura-diplomaziaren gauzatze praktikoa planteatzen diren lehentasunen arabera alda daiteke. Hainbat dira kultura txiki bati kultura-diplomaziako estrategia bat hedatzeak eskaintzen dizkion abantailak.

Nitxoko diplomazia

Petit Bozzo-k (2008) planteatzen duen estrategietako bat berak «nitxoko diplomazia» deitzen duena aplikatzea da. Potentzia diplomatiko periferikoei dagokienez, baliabide eta ahaleginak irabazi garrantzitsua lor daitekeen sektoreetan kontzentratzea gomendatzen du. Horren emaitza, kultura-diplomaziaren kasura ekarrita, euskal kulturaren esparrua onartzea izango litzateke, agian nazioarteko onespren motaren bat duen esparruren bat, eta ahaleginak esparru hori sustatzean kontzentratu. Ildo horretan, kultura-espresio guztiak (arteak, erakusketak, programak, festibalak, eta abar) dira erabiltzekoak.

Kultura-espresio propioak gainerakoekin elkarrizketan

Kultura-espresio propioak kanpoaldeari azaltzeko prozesuan gainerakoekin elkarrizketan jartzeari ekin behar zaio. Espresio horiek erakargarriak dira zenbait kezka globali erantzuten dietenean, besteen begietara ulergarri egiten dituzten balio erkide batzuei erantzuten dietenean. Ildo horretan abiarazten du kultura-diplomaziak esportazio-inportazio prozesu bat, ia aldi berean abiarazi ere. Kontua ez da kultura-baliabide propioak beste merkatu batzuetan kokatzea, baizik eta beste agente, erakunde eta sortzaile atzerritar batzuk erakartzea, baliabide horiek zer diren jakin eta ezagut ditzaten, barnera ditzaten eta eurenekin elkarrizketan jar ditzaten eta, azkenik, beren modura esporta ditzaten. Norabide bikoitzeko prozesu hori bultzatzea funtsezkoa da egungo kultura-dinamiken barruan kokatzeko.

Kontzertazio maila askotarikoa

Kultura-diplomaziaren oinarritzko ezaugarrietako bat planteatzen duen egitura maila askotarikoa da. Toki-botereek nazioarteko gero eta protagonismo handiagoa dute, esaterako, kulturaren esparruan Hiri eta Toki Gobernu Batuak (HTGB); erakundeak Kulturaren 21 Agenda hartzea;

kultura-erakundeak (museoak, antzerkiak, sorkuntza-zentroak...) modu autonomoan daude sare globaletan, sortzaileak libreki mugitzen dira argi eta garbi globalizatutako merkatuan; eta abar. Panorama hori dela-eta, ez dirudi zentzurik duenik gunek zentral bakarretik planteaturiko eta egikarituriko estrategia diplomatiko baten planteamenduak. Horregatik azpimarratzen dute adituek, gobernu beraren sailak koordinatzeaz haratago, gainerako administrazio-mailak (tokikoa eta foru-arlokoa) eta erakunde pribatuak edo proiektzio handieneko hartzaileak gaineratzea.

Zalantzarik gabe, hainbat pertsonak eta kultura-erakunde eta instituziok betetzen dute enbaxadore estraofizial papera kultura-diplomazia horretan bereziki aritzen den erakunde ofizialak eragin dezakeena bezain garrantzitsua da. Elkarrizketa-zubiak eraikitzeke, atzerriko iritzi publikoan eragiteke eta agente horiek maila goreneko diplomazia-harremanak izateko duten ahalmena ezein kasutan ere gutxietsi behar ez den potentziala da.

Marka dinamikoa eratzea

Adierazi denez, ahaleginak oso esparru zehatzean kontzentratzea planteatzen du «nitxoko diplomaziak». Antzeko jarrera planteatzen du *nation branding* kontzeptuak, hainbat autorek kultura-diplomaziaren zehaztapenetako bat bezala proposatu duen kontzeptuak. Kultura-espresio propioen «arima» biltzen duen marka sortu behar da.

Baina zer kultura-edukik egon behar dute marka horretan sartuta? Esportatzen diren espresioek erraz identifikatzeko moduko ezaugarriren bat bildu behar dute, nahiz eta egia den ez dela erraza ezaugarri hori aurkitzea topiko edo ikuspegi estereotipatuegietan erori gabe. Izan ere, kultura-ikonoek onespren handia dute, baina izaera estatikoa dute desabantaila nagusizat. Marka dinamismoan oinarritu behar da, tradizioarekin begirada berritzaileak proposatu eta kalitatea eta izen ona oinarritzat hartu. Guztiak ere osagai konplexuak dira, baina begirada konplexuaren bidez irudi iradokitzailea lor daiteke.

4. ERREFERENTZIAK

Orokorra

1. **Bound, K. et al. (2007)**, *Cultural diplomacy*, London: Demos.
2. **Fuentes La Roche, C. (2008)**, *Globalización de marcas culturales: ¿neocolonialismo cultural o inversión en creatividad?*, Madril: Elcano Errege Institutua.
3. **Lenczowski, J. (2007)**, *Cultural diplomacy, political influence and integrated strategy*, Washington: The Institut of World Politics.
4. **Marco, E. y Otero, J. (2010)**, *Colaboración público-privada en la acción cultural exterior*, Madril: Elcano Errege Institutua.
5. **Petit Bozzo, M. (2008)**, *La convenció sobre la Protecció i la Promoció de la Diversitat de les Expressions Culturals de la UNESCO i les polítiques de promoció de la diversitat cultural. El cas de Catalunya i la paradiploàcia cultural*, Tesis doctoral, Barcelona: Ramon Llull Unibertsitatea.
6. **Minguella, F. (2010)**, *El mecenazgo cultural internacional de las empresas*, Madril: Elcano Errege Institutua.
7. **Nye, J. (1990)**, *Bound to Lead: The Changing Nature of American Power*, New York: Basic books.
8. **Nye, J. (2004)**, *Soft Power: The Means to Success in World Politics*, New York: Public Affairs.
9. **VVAA (2007)**, *L'arme de la culture: les stratégies de la diplomatie culturelle non gouvernementale*, Paris: L'Harmattan.

Herralde eta eskualdeak

1. **Giacomino, C.A. (2009)**, *Cuestión de imagen: la diplomacia cultural en el siglo XXI*, Buenos Aires: Biblos.
2. **Hurkmans, B. (2008)**, *A la conquista del mundo: apuntes sobre la diplomacia cultural holandesa*, Madril: Elcano Errege Institutua.
3. **Informe final del Seminario Internacional, La diplomacia cultural. Reflexiones y propuestas desde Cataluña, 2009.**
4. **La Porte, T. (2006)**, *La diplomacia cultural americana: una apuesta por el recurso al poder blando*, Madril: Elcano Errege Institutua.
5. **Marco, E. (2008)**, *Una mirada al sistema británico de relaciones culturales internacionales: acción cultural exterior y diplomacia pública*, Madril: Elcano Errege Institutua.
6. **Martinell, A. (2006)**, *Hacia una nueva política cultural exterior*, Madril: Elcano Errege Institutua.
7. **Rodríguez Barba, F. (2008)**, *La diplomacia cultural de México*, Madril: Elcano Errege Institutua.
8. **Viñuales, I. (2010)**, *Diplomacia cultural: experiencias argentinas*, Madril: Elcano Errege Institutua.